

ENPRESEN konfiantza

2017KO 3. HIRUHILEKOKO IGURIKIMENAK

LABORAL Kutxako Ikerketa Departamentua

2017KO 3. HIRUHILEKOKO IGURIKIMENAK




1 | INGURUA

LABORAL Kutxak Industria Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, 2017ko hirugarren hiruhilekorako dituzten igurikimenen berri izateko. Bada, ondorio interesgarriak eman ditu, aurreko hiruhilekoan baino pixka bat hobek. Jarraian, ondorio nagusiak azalduko ditugu labor-labur.

Hasteko, enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten igurikimenei dagokienez, % 54,9k uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 37,5ek hobera egingo duela. Beraz, ikuspegi baikorra da nagusi eta, ondoren ikusiko dugunez, berdintsu pentsatzen dute azterturiko gainerako aldagaietan ere.


Ingurua



2 | FAKTURAZIOA


Enpresek fakturazioari buruz dituzten aurreikuspenak onak dira, 2017ko hirugarren hiruhilekoari dagokionez. Hala, % 51,3ren iritziz, egoerak bere horretan segituko du, eta % 39,3ren ustez, onera egingo du. Beraz, fakturazio txarragoa espero duten enpresen kopurua % 9,4koa baino ez da.

Fakturazioa




3 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, 2017ko hirugarren hiruhilekoan jarduerak bere horretan segituko duela uste dutenen kopurua % 55koa da, eta egoerak hobera egingo duela uste dutenena % 33koa. Inkestatuen % 11,9ren ustez, berriz, jarduerak okerrera egingo du.



4 | ESKABIDEAK


Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: fakturazioa eta jarduera hobetuko dela uste dutenek gehiago saltzea ala garestiago saltzea espero dute? Zentzu horretan, emaitzen arabera, badirudi eskaera-bolumena hobetzea espero dutela. Ondorengo grafikoan ikus dezakegunez, inkestatuen % 53,8k bolumenari eustea espero du eta % 35,8k hobetzea. % 10,4k, berriz, okerrera egingo duela uste du.



5 | PREZIOAK

Prezioei dagokienez, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, % 76,7k uste du prezioek bere horretan segituko dutela hirugarren hiruhilekoan. Gainerako enpresetatik, % 12,6k uste du prezioak handiagoak izango direla, eta % 10,7k jaitsi egingo direla.


Prezioak



6 | ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen errentagarritasun-igurikimenei dagokienez, % 67,6k uste du errentagarritasunean ez dela aldaketarik izango, % 20,4k errentagarritasuna handiagoa izango dela eta % 11,9k txikiagoa izango dela.

Errentagarritasuna




7 | INBERTSIOA

Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboa handitzeko eta, ondorioz, langileen kopurua handitzeko asmoa dutela.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 74,2k uste du eutsi egingo diola 2017ko hirugarren hiruhilekoan. % 19,8k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Beraz, inkestatuen % 6ren ustez, inbertsio-bolumena txikitu egingo da.


Inbertsioa



8 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 68,9k uste du enpleguari eutsi egingo zaiola, % 25,2k plantilla handitu egingo dela eta % 6k plantilla txikitu egingo dela.

Enplegua



2017KO BESTE ADIERAZLE BATZUK




9 KONFIANTZA INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA

Egoerari buruzkoa ez beste adierazleak hartuz gero, konfiantza-indizearen balioa 59,5koa da. Beraz, indizeak gora egin du aurreko hiruhilekoan jasotako datuarekin alderatuta, 58,2koa izan baitzen. Horren arrazoia hauxe da: enpresek ikuspegi pixka bat baikorragoa dute ekonomiak 2017ko hirugarren hiruhilekoan izango duen bilakaerari buruz. Gainera, indizearen balioa 50etik gorakoa izateak hedapena adierazten du, eta hori koherentea da beste esparru geografiko batzuetan lortutako balioekin: Espainian 57,3koa da (apirileko datua) eta Eurogunean 56,8koa (maiatzeko datua).

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurreko paragrafoan azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 46,7k uste du beren horretan jarraitu dutela, % 30ek hobera egin dutela eta % 23,3k txarrera egin dutela.


Esportazioak



10 BERRIKUNTZA EDO I+G-EKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Geko ekimenei bideraturiko salmenten portzentajeari dagokionez, inkestaturen % 64,5 balio minimoetan kokatzen da, % 0 eta % 0,5 artean, eta % 7,7k, berriz, % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.


I+Garen %-a salmenten gainean



11 BEZEROEI KOBRAZTEKO EPEAREN BILAKAERA

Bezeroei kobratzeko epeari dagokienez, azken urtean ez da aldaketarik izan, inkestaren % 80ren ustez. Enpresen % 13,9k, berriz, epea handitu egin dela uste du, eta % 6,1ek txikitu egin dela.


Kobratzeko epea



12 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Azkenik, inkestaturen % 69,4ren iritziz, banku-finantzaketa eskuratzeko erraztasuna ez da aldatu azken urtean. Gainerako enpresak honela daude banatuta: % 22,6ren ustetan, erraztasun handiagoa dago, eta % 8,1ek kontrakoa uste du.

Bankuen finantzaketa



A large, stylized logo consisting of the letters 'G' and 'V' in a bold, sans-serif font. The 'G' is a thick, dark grey ring with a white center, and the 'V' is a solid dark grey shape. The logo is positioned on the right side of the slide, partially overlapping the text.

2017KO ADIERAZLEAREN BILAKAERA LABURTZEKO GRAFIKOA

13 ENPRESA IGURIKIMENAK

Ondorengo grafikoan, aztertutako azken bi hiruhilekoetako igurikimen-adierazle partzialen eta osoaren balioa ikus daiteke.

